

Santa Zezilia, musikari gorazarrea

Musika eskolak eta Alboka abesbatzak hainbat ekitaldi antolatu zituzten musikarien zaindariaren omenez

Larunbatean, Santa Zezilia musikarien zaindariaren eguna izan zen. Horregatik Lasarte-Oriako Musika eskolak, zein Alboka abesbatzak hain egun seinatuta ospatzeko hainbat ekintza burutu zituzten.

Musika eskolak ostegunean egin zion omenaldia bere zaindariari. 18:00etan, eguraldiak lagunduta, trikitiak, panderoak eta txistuak hartu eta herri erdialdeko kaleak girotu zituzten kalejira alaia eginaz.

19:00etan, berriz, ikasturteko lehenengo kontzertua egin zuten. Gitarra, flauta, pianoa, etab. instrumentuen doinuak eta era estilo desberdinetako abestiak entzun ziren Manuel Lekuona kultur etxeko aretoan, hala nola, *The Police* taldearen *Every breath you take*, herrikoia den *Aitorren hizkuntz zaharra* edo *Pirritx eta Porrotxen Maite zaitut*.

Igandean, berriz, Alboka

abesbatzaren txanda izan zen. Urtero legez, Arantzazuko Amabirjinaren elizan 12:30etan zendutako bazkide eta abeslariak eskainitakoa meza girotu zuen abesbatzak.

Ostean, 40 bat bazkide eta abeslari, heldu, zein gazte, bildu ziren Txitxardin beltza jatean egin zen bazkarian. Eta otorduaren ostean, ospakizuna era ezin hobean bukatzeko, dantzaldia izan zuten.

Gabonak ate joka

Bestalde, ostiralean, Alboka abesbatzak emanaldia eskaini zuen Donostian, Kutxak Andia kalean duen aretoan.

Elkarte belenistak Gabonetako ekintza zikloaren inaugurazio ekitaldiaren barruan izan zen. Bertan, Gabonetako abestiak entzuteko aukera egon zen, hala nola, *Adeste fideles*, *Olentzero* edo *Atorator*. Beraz, dagoneko Eguberriak ate joka ditugu. •



Herriko musika eskolak Santa Zezilia musikarien zaindariaren eguna ospatzeko musika kalera atera zuen ostegunean.



Alboka abesbatzak, berriz, Arantzazuko Amabirjinaren elizako 12:30etako meza girotu zuen igandean.




Lasarte-Oriako
Literatur
Lehiaketako
irabazleen
zerrenda /5

ALBISTEAK ■ 5

Manex
Altolagirrerekin
solasean,
Ostadarreko
neska kadeteen
entrenatzailea



Gazte Bilguneko
aretoan estreinoa
ostegunean
Carandiru
filmarekin /6



IZARRA
BITXITEGIA

www.izarrabitxitegia.com

IPARJOY A.I.E.



Geltoki kalea 19 • Tel.: 943 371384 •
Juan XXIII.a plaza, z/g • Tel.: 943 364945

Manex Altolagirre / Ostadarreko neska kadeteen taldeko entrenatzailea

‘Taldea gaztea izan arren, jokalarien esperientzia futbol zelaian ikusi daiteke’

Ostadar-Bideo Lagunak nesken kadete taldea Txapeldunen fasea jokatzeko sailkatu da, lehen fasean bigarren geratu ondoren. Manex Altolagirrek, Iñaki Aristondo eta Naroa Illarramendirekin batera, Ostadarreko neska kadeteen taldea prestatzen du. Manexek duela bost urte hasi zen lanean talde honekin. Berak denboraldiaren balorazio bat egin digu.

Nola joan da lehen fasea?

Lehen fasean Añorga taldea nabarmendu da. Gu Zumaia-ko eta Hernanirekin batera, txapeldunen faserako sailkatzeko talde faboritoen artean egon gara. Egia esan, partidatik partidara, ikusten zen ez genuela arazorik izango sailkatzeko.

Beraz, desberdintasun handiak egon dira sailkatu eta sailkatu ez direnen artean?

Inoiz ez dago partida errazik, baina beste taldeen kontra nahiko eroso jokatu eta erraz irabazi dugu.

Nola ikusten duzu Txapeldunen fasea?

Sailkatu direnen artean askok iazko fasean topatu genituenak dira eta nahiko talde indartsuak zeuden. Argi dago Beasain eta Añorga goran egongo direla. Talde gehienak iazko fasetik ezagutzen ditugu, baina urte batetik bestera taldeak aldatu daitezke eta sorpresaren bat egon daiteke. Inoiz ez dakizu zer gertatu daitekeen.

Orduan ez duzu taldea finalean ikusten?

Goran ibiltzeko gauzak oso ondo egin behar ditugu eta gauzak ondo atera behar zaizkigu ere. Saiatu behar



Ostadar-Bideo Lagunak neska kadeteen taldea larunbatean herriko futbol zelaian Zumaia-koren aurka jolastu aurretik. Azkenean, 2 eta 0 gailendu ziren.

gara, baina, Añorga eta Beasain aurrean ibiliko direla ziur nago. Gero ikusi behar dugu ea zer aurkitzen dugun beste taldeen aurka. Hernanin kontra adibidez, ez ditugu inoiz partidur errazik izan, beti partidur borrokatuak izan dira. Hala ere, gauzak asko aldatu daitezke fase honetan. Txapeldunen fasean talde berdina etorri arren, egun txarra izan dezakegu edo gauzak ondo ez bazaizkigu ateratzen, galdu egin dezakezu. Lehen fasean irabazteak ez du esan nahi orain aukera guztiak gure alde daudenik. Fase berri hau sorpresaz betetarik egoten da.

Iaz ere txapeldunen fasea jokatu zenuten, baina ez zen

oso ondo atera, ezta?

Egia da nahiko kaxkar ibili ginela. Aurten sailkapenean erditik gora ibiltzeko aukerak izango ditugu. Lehenengo lauen artean, espero dut.

Gainera, urteak dira neska hauekin lanean ari garela, baten batek taldea utzi duen arren, gehienak berdinak dira. Honek laguntzen du, jokalariek urtetik urtera esperientzia gehiago dutelako.

Taldea prestatuta al dago fase berri honetarako?

Oso motibatuta daude txapeldunen fasea jokatzeko. Beraiek inoiz baino hobeto ikusten dute euren burua. Badakite pauso bat aurrera eman dutela eta ilusio handia dutela ikusten dut.

Zertan hobetu da taldea?

Hobetu baino, esperientziak laguntzen ditu. Taldeko neska batzuk duela lau bat urte hasi ziren futbolean jokatzen eta esperientzia hori aurten futbol zelaian ikusten da.

Nola ikusten dituzu taldeko jokalariei berriak?

Uste dut, azkenean, animua kontagiatu egiten dela eta orduan besteak bezala ilusio askorekin daude eta gauzak ondo egiteko gogoarekin.

Urte batzuk dira Ostadarreko futboleko nesken taldea entrenatzen duzula. Herriko nesken futbolak etorkizunik duela uste al duzu?

Kadeteen taldeari dagokionez, hurrengo urtean bost bat

jokalarierregionaleko taldera pasako dira eta egun talde handia izan arren, 21 bat jokalariditugu, nabaritutokodugu. Bestetik, etorkizunari begira, kadeteen neska askodaude eta beraien artean nola hitz egiten duten ikusita eta zenbat neska etortzen diren partiduetan ikustera, jarraipena izango duela pentsatzen dut.

Nolako giroa duzue taldean?

Kontentu gaude taldearekin. Normalean denak entrenamenduetara joaten dira. Konprometuz hori oso ondo betetzen dute. Gainera, oso giro ona dago entrenatzaile eta jokalarien artean. Noizean behin errietaren bat daukagu baina giro polita dago taldean. •

Kiroletako oharra

Igerilekua itxita

Azaroaren 29an, goizeko 10:00etatik 12:00etara udal igerilekua itxita egongo da, Eskola Kirolako txapelketa egingo baitute bertan. Udal kiroldegitik jakinarazi dute, hurrengo larunbatean, azaroaren 29an, kirol instalazioetako abonatuak Andoain (943 300 147) eta Usurbilgo (943 372 498) igerilekuak erabiltzeko aukera izango dutela.

Aerogazte

Astelehen eta asteazkenetan, 17:15ean, aerobikako eskolak ematen dira 14 urtetik beherako neska eta mutilentzat, Udal Kiroldegiko aretoan.

Begirale tituludunak koordinatu eta animatzen du, koreografia ugariekin, musika eguneratu eta dibertigarriekin. Erritmoaren eta musikaren bidez, giza-harremanean eta osasuna garatzen eta hobetzen dituzte.

Aquarobic

Modalitate fisiko berri honen eskolak Udal Kiroldegiko Igerilekuan ematen dira, astearte eta ostegunetan, 9:15etik 14:15era. Aquarobic uretako gimnasia egitean datza, musikaz eta ikasleen beharretara egokitutako ariketaz lagundua. Edozein adin, genero eta mailako pertsonak egin dezaketen jardura da. Aerobicaren bidez errendimendua handitu daite-

ke besoak, hankak eta enborra erabiltzen diren kirolekin. Prestakuntza-modu ezin hobea da, baita gorpuzaren goiko atalen esku-hartzea eskertzen duten jardura profesionala garatzen dutenentzat ere.



Eudelek *Emakumeenganako Indarkeriari Ez leloa duten* kartelak banatu ditu etxeetan

■ Ekintzan euskal herritarren %71 ordezkatzen duten 71 udalerri hartuko dute parte

TXINTXARRI

Bihar, azaroaren 25a, Emakumeen aurkako Indarkeriaren kontrako Nazioarteko Eguna dela eta, Eudelek, Euskadiko udalen elkarteak ekintza aitzindari bat sustatu du, milioi erdi etxetako leihotan *Emakumeenganako Indarkeriari Ez leloa duten* kartelak jartzea. Horretarako, puntu batez adierazitako sinboloa erabiliko da. Era honetara, herritarrek emakumeen aurkako indarkeriari erabateko ukoa adieraztea nahi dute.

Ana Urchueguia Lasarte-Oriako alkatea eta Lourdes Acevedo gizarte zerbitzueta zinegotziak ostiraleko prentsaurrekoan azaldu zuten bezala "Eudel osatzen duten udalek eta atxiki berri direnek bere herriko komertzioetan, balkoietan eta erakundeetan puntua ikus dadin saiaturako gara. Egoera gogora ekartzen duen puntua da, pentsa arazten duen puntua. Helburua herritarrek gaiari buruz pentsa dezaten da."

Ekintza honetan, euskal herritarren %71 ordezkatzen duten 71 udalerri hartuko dute parte. Kartelak egun hauek banatu dira etxetik etxera eta banaketa honen helburua egun horretan, eta aldi berean, udalerririk horietako milioi erdi etxetan indarkeriari ez esatea da.

Herritarren lankidetzak

Behar besteko arrakasta lortze-

ko, nahitaezkoa da herritarren parte-hartzea. Horregatik, udaletik deia egiten zaie Lasarte-Oriako herritarrei kartela bere balkoietan eta saltokietako erakusleihoetan jartzeko.


"Lasarte-Oria adibide izatea gustatuko litzaiguke eta balkoi bakoitzean honelako puntua jarrita egotea," adierazi zuen Urchueguia alkatea eta Lourdes Acevedok zera atxiki zuen, "Udaletxean ere kartelak ezarriko dira, pleno aretoko leihotatik izango da, jende guztiak ikusi ditzan."

Ekintza hori da gai honen inguruan Eudelek burutu duen azkena; izan ere, urte asko daramatza Emakumeen aurkako Indarkeriaren inguruan herritarrek kontzientziatu nahian. Lasarte-Oriako alkateak esan bezala, "oso garrantzitsua da ekimen honetara atxikitzea. Eudelek hiru urte daramatza honelako ekintzak egiten. Ez ditu soilik legeak eta dekretuak negoziatu behar, honelako gaien kontzientziazioan ere lana egin behar du."

Retales de mujer

Gaiarekin jarraikiz, ostiralean, Emakumeen Zentro Zibikoak genero-indarkeriaren aurkako eguna ospatzeko antolatutako ekitaldietako bi burutu ziren, bata Zentroko antzerki taldearen *Retales de mujer* antzezlan eta bestea emakumei zuzendutako afaria

Manuel Lekuona Kultur



Ana Urchueguia Lasarte-Oriako alkatea eta Lourdes Acevedo gizarte zerbitzueta zinegotziak ostiraleko prentsaurrekoan.

Exeko aretoan izan zen. Herritar ugari gerturatu zen Emakumeen Zentro Zibiko antzerki taldea ikustera.

Adin desberdinetako emakumeen anonimoen kezak, ametsak edo beldurrak aurkeztu zituzten antzezlanean, hala nola, gizon perfektua, ginekologoari bisita edo lehenengo hilerokoa. Ikuslea barretik malkora aldatzeko egoerak antzeztu zituzten eta horregatik, bukaeran txaloak eskaini zizkieten taldeari.

Antzerkiaren ostean, herriko emakumeek Txitxardin Beltza jantzetan afari paregabeaz gozatzeko aukera izan zuten. •



Emakumeen Zentro Zibiko antzerki taldea *Retales de mujer* antzeztzen.

Atez-ateko sistemaren ezarpena eskatu zen Agenda 21 foroan

TXINTXARRI

Asteazkenean lasarteoriarrek hondakinen gestioak eta errauskailuaren irtenbideak sortzen duen kezka isladatu zen Villa Mirentxun egin zen hondakinen gestioari buruzko monografikoan.

Hasieran Ricardo Ortega, ingurumeneko zinegotziak Lasarte-Oria eta San Markos Mankomunitateko udalerrien hondakin biltzetaren kopuruak aipatu zituen, ostean, atez-ateko biltze sistemaren adibideak eta datuak eskaintzeko.

Egoera aztertu ostean, n ekintza planean hondakinen gestioari buruzko ekimenak, birziklapena bultzatzea, ez

etxeetako bakarrik, baita taberna eta saltokietakoa ere; zabor organikoaren gaikako biltze bultzatzea eta behar bezala kudeatzea eta hiri-hondakin solidoen arazoari buruzko sentsibilizazio kanpaina gehiago egitea, aztertu eta eztabaidatu zituzten lan mahaietan.

Gaiak sortzen duen kezka dela eta, adin desberdinetako herritarrek ikusi ahal izan genituen lan taldeetan.


Saioaren amaieran, taldeetan sortutako ideiak komunean jarri eta, horren arabera, ingurumeneko gaiari buruzko informazioa eta hezkuntza edo hondakinen biltze era dira egun herritarrei kezka handien sortzen dizkieten gaiak.

Atez-ateko biltzea

Honela, herritarren artean hondakinen biltze erari buruzko kontsulta egitea eskatu zen eta atez-ateko sistemaren ezarpena.

Honen harira, atez-ateko biltzetaren esperientzia pilotua egingo da hurrengo urtean. Baina aurretik herritarrei hondakinei buruzko inkesta egingo zaiela jakin arazi du udalak, esperientzia eragin handiagoa izan dezan.

Hala ere, Ricardo Ortega-aren ustetan, Lasarte-Oriako birziklapenaren eta hondakin biltzetaren datu positiboek hurrengo urtean egingo den esperientzia pilotua era paregabea aurrera eramatera lagunduko dute." •



Oñatz taldea Markina eta Bolibarren

■ Aretxinagako ermita eta Ziortzako monastegia bisitatu zituzten ■ Markinan zenbait jauregi eta karkabetako ateak erakutsi zizkieten ■ Hurrengo irteera Aranora izango da

Oñatz taldea Bizkaia aldean izan zen aurreko asteburuan eta besteak beste Aretxinagako ermita, Markina eta Bolibar ezagutu zituzten. Aretxinagako San Miguel toki berezia da. Hiru harkaitz haundiren barruan sartuta dago santua eta haren inguruan eraikia

ermita. Uste da kristautasunaren aurreko toki ikusgarrian eraiki zela ermita. Eguraldi txarra egin zuen igande goizean, lainoa sartu zen eta tamalez ez zuten Urregarai-Igotz edo Santa Eufemia menditik ikusi daitezken bista zoragarrietaz gozatzerik izan.

Jon ALTUNA

Lasarte-Oriako hogeitamar laguneko taldea abiatu zen aurreko igandean Bizkaia, Markina inguruko parajeak ezagutzera, Oñatz taldeak aurtun antolatutako bigarren irteeran.

Herri honetako bertako bi gida izan zituzten laguntzaile egun osoan zehar. Arratsaldean, Markina eta Bolibar herriak ezagutu zituzten, baina goizean goizetik Felipe Amutxastegik besteak beste Urregarai-Igotz mendira eta Aretxinagara lagundu zien eta bazkaltzeko tokia aurkitu ere bai.

Eguraldi txarra egiten zuen eta Markinan itxita dagoen Batzokiko jangela ireki zuten bertako alkateari esker, Lasarte-Oriako bisitariek erabiltzeko. Beraz Batzokian jan zuten etxetik eramandakoa.

Karkabetako ateak

Markinan gauza bitxiak ikusteko aukera izan zuten. Euskal Herriko beste herri batzuetan bezala, alde zaharreko kaleen artean karkabak daude, eta oso dotoreak ez direnez, tallatutako ate eder batzuekin itxita dauzkate. Artisauak landutako ate dotore horiek erakutsi zizkieten bisitariei. Gero Markinako beste zenbait jauregi ikusi eta Bolibar herrira abiatu ziren.

Bolibarren Ziortzako Andre Mariaren monastegia ikusi zuten. Santio bidean dago eta monategiko klaustroaren arkuetan maskorrak ageri dira. Galtzada erromatar bat ere bada, Bolibartik barrena Conpostela aldera zihoana.

Elezaharra

Uste da eliza X. mendekoa dela eta elezahar edo ipuin bitxi bat bada honen inguruan: Itxura denez, 968. urtean, Garai auzuneko Santa Luzia elizan meza entzuten zirenek, arrano bat ikusi zuten elizako hilobi batetik buruhezur bat ahoan hartu eta mendirutz eramaten. Muino batean utzi omen zuen kaskezurra eta bertan hasi omen ziren Ziortzako eliza eraikitzen.

Bolibarren bada Simon Bolibar Hego amerikako zenbait



Taldea arratsaldean Bolibarren Ziortzako monastegiaren aurrean. Behean ikusten denez, eguraldiak ez zuen lagundu. Eskerrak bazkaltzeko tokia topatu zuten.

herriren "Askatzailearen" ome-nezko monumentu bat ere. Espainiar kolonizatzaileen aurka borrokatu zuen Bolibarrak. Besteak besteak Peru, Bolivia, Venezuela eta Kolonbian gogoratzen dute askatzailea.

Venezuelan jaioa bazen ere bere arbasoak Bolibarkoak ziren. Hugo Chaves Venezuelako presidentek oraindik ere sarri erabiltzen du iraultza bolibardarra, Hego Amerikako herrien batasuna eta euren borroka adierazteko.

Hurrengo irteerak

Duela hilabete batzuk Oñati eta Araotz ezagutu ondoren Oñatz taldearen bigarren irteera arrakastatsua izan da Bizkaia egin dutena. Otsailan Aranora joateko asmoa dute eta bertan babarrunak jatekoak. Beste irteera bat, Baztan aldera egin nahi du taldeak eta azkena asteburu osorako Arabara, Valderejo ingurua ezagutzeko. •



Aretxinagako santua hiru harkaitzen artean dago. Umorea badu taldeak, bazkalostean kantari aritu ziren.

Lasarte Oriako Literatur Lehiaketa 2008

Partehartzaile gehien izan dituen Literatura lehiaketako sari banaketa

Nerea EIZAGUIRRE

Nahiz eta larunbatean musikariaren eguna izan, Lasarte-Orian Literaturaren eguna izan. Izan ere, Lasarte-Oriako Literatura Lehiaketako sari banaketa burutu baitzen eguerdian.

Manuel Lekuona kultur etxeko hitzaldi aretoa lepo zegoen. Bertan lehiaketako partehartzaileen eta gurasoen urduritasuna edo epaimahai-kideen lasaitasuna ikusi ahal izan genituen.

Jone Altuna kulturako arduradunak eman zituen ongi-etorri hitzak. Ostean, eskerrak lehiaketa antolatzen eta aurre-eramatzen duten taldeei eskerrak eman zizkien, batez ere, Lasarte-Oriako Landaberri ikastola eta Zumaburu-Sasoeta eskolari. "Izan ere, haiek idazkera bultzatzen baitute eta, era berean, haiei esker, haurrek istorioak era egokian kontatzen ikasten", adierazi zuen Altuna andreak.

Bukatzeko kulturaren garrantzia azpimarratu eta Ingrid Betancourten hitzak ekarri zituen aretora, "finantzeta etxe orratzak gure gainera erortzen direla dirudien momentuetan, behar dugun eraldaketa, gure zibilizazioaren ahuldurak hain argi eta garbi adierazten



Bukaeran, 2008ko Literatura Lehiaketako saridun guztiak batu genituen argazkian ateratzeko.

direnen, ezinbesteko sentitzen dugun eraldaketa, gure bihotzean hasten da".

Helduen mailako euskarazko eta gaztelarazko poesia irabazleak irakurketa egin zen jarraian. Aitor Tejedorrek Arantza Otegi-*ren Ubideetatik* ozen irakurri zuen Guillermo Carcedo piano-joleak Manciniren *Moon River* jotzen zuen bitartean, Noemi Fernandezek, aldiz, Iñigo Calvo gitarraren laguntzaz Marina Aoi-*zen La sombra del zahorí*.

Eta ostean, Ana Urchueguia alkateak, Jone Altunak, Martin Moreno Zerbitzu publikoetako zinegotziak eta Xabier Goitia Kultur etxeko arduradunak sari banaketa burutu zuten.

Ekitaldiari amaiera emateko alkate andreak, literatura sarien garrantzia eta nazioartekotasuna azpimarratu zuen, "izan ere, aurtengo irabazleak bat La Habanako baita."

Honetaz gain, 2008ko

lehiaketa partehartzaile gehien izan duena dela aipatu zuen Ana Urchueguia alkateak, "iaz baino 100 idazki gehiago izan ditugu, guztira, 637."

Jarrian eskerrak eman zizkien lehiaketako antolatzaileei eta epaimahaikideei, kulturak hezkuntzan duen garrantzia azpimarratu eta, bukatzeko, bertan zeuden guztiak lehiaketan parte hartzen eta idazten jarraitzera animatu zituen. •

HAUR LEHIAKETAKO GARAILEAK



Julen Urruzola



Asier Olmos



Beñat Urruzola



Leire Chorro



Josu Anguiano



Unai Chorro



Jon Martin

LASARTE-ORIAKO XXI. HAUR LITERATUR LEHIAKETA 2008

Epaimahaia: Pilar San Cipriano, Elena Anso eta Teresa Arozena

Gaztelaraz

Euskaraz

Epaimahaia: David Urbistondo, Montserrat Fábrega eta Elena Miguel

A kategoria (99 urtean jaioak eta hurrengoak)

Ipuina - 4 lan aurkeztu dira

Garailea Asier Olmos 9 urte *Pablo en un videojuego*
Bigarren Haizea Gomez 9 urte *Unas alas para Pegaso*
Hirugarrena Noa Carretero 9 urte *El amigo perfecto*

Poesia Ez da lanik aurkeztu

B kategoria (96, 97 eta 98 urtean jaioak)

Ipuina - 174 lan aurkeztu dira

Garailea Leire Chorro 10 urte *Historia de un trapo*
Bigarren Josu García 12 urte *El equipo S.E.R.*
Hirugarrena Bidane Murillo 12 urte *Petra*

Poesia Ez da lanik aurkeztu

C kategoria (93, 94 eta 95 urtean jaioak)

Ipuina - 42 lan aurkeztu dira

Garailea Unai Chorro 13 urte *El bizcocho de la abuela*
Bigarren Ander Casado 13 urte *A cambio de un sentido*
Hirugarrena Beñat Ituarte 14 urte *¿Un sueño?*

Poesia - 4 lan aurkeztu

Garailea Jon Martín 14 urte *La Poesia de la vida y sus colores*

A kategoria (99 urtean jaioak eta hurrengoak)

Ipuina - 35 lan aurkeztu dira

Garailea Julen Urruzola 8 urte *Gure Izarra*
Bigarren Maria Zulaika 9 urte *Birramona sorgina da*
Hirugarrena Luken Carbayeda 9 urte *Esnetsu ardia*

Poesia Ez da lanik aurkeztu

B kategoria (96, 97 eta 98 urtean jaioak)

Ipuina - 212 lan aurkeztu dira

Garailea Beñat Urruzola 11 urte *Loretegi ederra*
Bigarren Leire Chorro 10 urte *Pelutzeke hartza*
Hirugarrena Patricia Prieto 11 urte *Soraia bikingoen artean*

Poesia Ez da lanik aurkeztu

C kategoria (93, 94 eta 95 urtean jaioak)

Ipuina - 26 lan aurkeztu dira

Garailea Josu Anguiano 13 urte *Haritz*
Bigarren postua Eider Mugica 13 urte *Aintzinako aiton-amonak*
Hirugarrena Unai Chorro 13 urte *Zaunkak bihotzetik*

Poesia Ez da lanik aurkeztu

LASARTE-ORIAKO XXII. LITERATUR LEHIAKETA 2008

Epaimahaia: Juan Manuel Díaz de Guereñu, Iñaki Aduriz eta Iñaki Beti

Gaztelaraz

Euskaraz

Epaimahaia: Felipe Juaristi, Karlos Linazasoro eta Rufino Iraola

Ipuina: Luis Manuel García *Principio de incertidumbre* Kubatarra
Poesia: Marina Aoi *La sombra de Zahorí* Tafallakoa

Ipuina: Diego Leon *Eutanasia (Iratiaren xarma)* Barakaldokoa
Poesia: Arantza Ortega *Ubideetatik* Tolosakoa

Estrenoa Gazte Bilgunekeo aretoan

■ Hogeia lagun elkartu ziren Iñigo de Loiola kaleko lokalean *Carandiru* luzemetraila ikusteko
 ■ Hamabostero emango da filme bat ■ Lokala egokitzen ari dira zerbitzu ezberdinak eskaintzeko

JON ALTUNA

Ez da "multi" bat, oraindik atontzen ari dira Gazte Bilgunearen lokala Iñigo de Loiola kalean, baina gazteak gauzak antolatzeke gogoz daude eta aurreko ostegunean zinema denboraldia hasi zen. Estrenoa, *Carandiru* Brasilgo filmea eskaini zen eta Gazte Bilgunean bildu ziren ikusleen bihotzak ikuitu zituen filme berezi honek. Latinoamerikako espe-
 tzerik handiena zen *Carandiru*.

Gazte bilgunearen ekimen berria da zinema emanaldie-
 na. Hamabost egunean behin filme bat botako da kañoiarekin Iñigo de Loiola kaleko bilgunean, 21:30etatik aurrera. Okendo zinema taldeak ere bi astean behin ematen du pelikula eta beraz ostegunero izango da zinema Lasarte-Orian. Kultur Etxean zinemark ez dagoen astean Gazte Bilgunean eskainiko da. Hemen ez da sarrerarik ordainduko eta ikusleek nahi badute ondoren egingo den solasaldian parte hartzeko aukera izango dute.

Pelikula eman aurretik, antolatzaileek, hau da, Gazte Bilgunean ardura hori hartu duten taldeko partaideek, hari buruzko azalpenak emango dituzte. Bukaeran, filmean eta gaiaren arabera, eta ikusleek gogoia baldin badute, eztabaidarako aukera eskainiko da. Aitzol Etxegoien talde horretako partaideak jakinarazi digunez, ideia asko dituzte ondorengo hilabeteetako emanaldiatarako, baina zehaztu gabe daude.

Okendorekin elkarlana

Okendo taldekoekin harremanetan daude Gazte Bilguneak eta herriko zinema taldekoen laguntza izango dute. Aitzolek esan digu Okendo zinema taldearen filosofiari eutsiko diotela, hau da zinema aretoetan ikusten ez



Aitzol Etxegoienek eman zituen *Carandiru* filmeari buruzko azalpenak.

diren filmak ekarriko direla. "Bai, zine komertzialetik urrun dauden pelikula ekarri nahi ditugu. Zine independentea eta batez ere herri ezberdinetako pelikula". Izan ere, gaur egun, aretoetan pelikula gehienak AEBkoak dira, presupuesto handikoak. Horiek ikusteko arazorik ez da, pila bat jartzen dira zinema aretoetan. Gazte Bilgunean beste era batekoak emango dira. Taldeko partaideak arduratuko dira pelikulen aukeraketaz.

Oraingoz hasiera da eta herritarren erantzunaren zain daude, baina Aitzolek aurreratu digunez, jendeak gogoia badu posible izango da gai baten inguruko filme sorta bat eskaintzea eta gairen batean sakontzekoa.

Hasteko hogeia lagun bildu ziren lehen emanaldian. Aitzo-

lek aitortu digu normala dela hasieran harrera oso handia ez izatea, baina gogoz daude aurrera egiteko, "jendea horrelako pelikula ikustera ohitu dadin". Bere ustez, horrelako zinema eskaini behar da. "Aukera polita izango da".

Lokala egokitzen

Gazte Bilgunea atontzen ari dira egitasmo ezberdinak martxan jartzeko eta oraindik tokia ondo egokitu gabe badago ere zinemarekin hasi egin dira. "Ez dugu propaganda gehiegi egin nahi, hain juxtu aste honetan hasi garela lokalean konponketak egiten eta lokala hankaz gora dagoelako". Dena den, lokaleko sarreraren prestatu zuten pantaila, kañoi, soinu ekipoa eta beharrezko tresnak eta ez zen arazorik izan. Lehen asteetako filmak "jen-

dearen erantzuna frogatzeko" emango dira.

Aitzol Etxegoienekin izan dugun solasaldia baliatu dugu Gazte Bilgunekeo proiektuari buruz mintatzeko. Bere iritziz, "nahiko proiektu handia da eta finantzaketa zabala behar du. Piskanaka badoa. Une honetan rokodromoa eraikitzen hasi gara, pareta batzuk bota, komunak jarri, gela bat egokitu, hemendik gutxira barra eta haltzari batzuk jarriko dira, jendea sartu eta eroso egon dadin txukuntzen ari gara".

Zinearekin batera beste proiektu batzuk ere badira, batzuk jada bertan egiten dira, esaterako *Irakutzezin*, eta beste batzuk gerora gauzatu-
 ko dira: musika gunea, aurre-
 rago egingo da lokala insonorizatu beharra dagoela.

ko, ordenagailuak jartzean ikastaroak antolatu ahal izan-
 go dira, ... "Lokala atontzen ari gara, gauza batzuk egin daitezke jada, baina ireki ez da oraindik ireki".

Etorbizun oparoa ikusten dio Aitzolek Bilguneari. "Lasarten ez bere historian ezta orain ere ez da beste alternatibarik izan. Gazteak bere aisialdia antolatzeke orduan zailtasunak izan ditu beti eta iruditzen zait badagoela belaunaldi berri bat gogoak dauzkana proiektu berrietan sartzeko, bere aisia kudeatzeko eta martxan jartzeko. Lokala handia da eta badiu horrelako ezau-
 garri batzuek gazteentzako erakargarriak direnak".

Funtzionamendua

Gazte Bilgunearen funtzionamenduari buruz, talde autonoma-
 motan banatuta izango da eta talde bakoitzak bere esku izango du bere arloaren kudeaketa eta bere arloko ekitzen antolaketak. Batzorde-
 tan funtzionatuko da, baina asanbladan hartuko dira erabakiak. Laster Ttakunekin hitzarmen bat egingo da funtzionamendua zehazteko. "Momentuz asteen behin bil-
 tzen gara denok, koordinazio batzordean, talde bakoitzak izan dituen aurrerapenak komentatzeko eta gai orokorretaz hitzegin edo eztabaidatzeko. Horrela ari gara funtzionatzen" aipatu digu Aitzol Etxegoienek.

Ttakun Kultur Elkartearen ideia izan da Gazte Bilgunea. Izan ere, ohartu ziren Ttakun elkartearen beraren baitan eta baita Lasarte-Oria udalerrian, 16 urte bitarteko gazteentzat aisiako nahiko eskaintza bade-
 la, baina hortik gorakoentzat eskaintza eskasa eta bilgunerik ez zegoela. Horrela, Iñigo de Loyola kaleko 244 metro karratuko lokal ederra erosi zuen Ttakun elkartek eta ber-
 tan da Gazte Bilgunea. •

Txintxarri diruz laguntzen duten erakundeak



Lasarte-Oriako Udala
 Euskarako Batzordea



EUSKO JAURLARITZA
 KULTURA SAILA

Argitaratzailea: Ttakun Kultur Elkartea, Geltoki kalea 4, 20160 Lasarte-Oria, 943 366858, G-20407557 • Legezko gordailua: SS513/93 • ISSN: 1134-0053 • Inprimategia: Zeroa Multimedia, S.A.
 Aleak zenbakiko: 7.300 • Erredakzioa: txintxarri@ttakun.com • Publizitatea: publizitatea@ttakun.com • Administrazioa eta banaketa: administrazioa@ttakun.com; ttakun@ttakun.com.

Txintxarrik ez du bere gain hartzen iritzi-artikuluetan eta irakurleek bidalitako gutunetan adierazitakoaren erantzukizunik.

Egunero

Erakusketa

MONICA CAÑON URSOLA margolariaren margo minimalistak ikusgai. Jalgin, egun osoan.

Erakusketa

ASIER BASTIDA argazkilariaren *Amets bat eraikitzen* erakusketa. Euskal Fondoan laguntzarekin. Kulturetxean 18:00etatik 21:00etara.

Astearte, 25

Hitzaldia

TERESA MOLLÁ Ontinyenteko (L'Entesa) udaleko zinegotziak genero-indarkeriari buruz hitz egingo du genero-indarkeriaren aurkako egun internazionalarekin. Mollá andereak genero-indarkeriaren aurkako legearen aurreproiektuan parte hartu zuen. Zentro Zibikoan, 18:00etan, GAZTELANIAZ.

Ipuin-kontalaria

BEATRIZ EGIZABALEK ipuin zoragarriak kontatuko ditu 6 eta 8 urte bitarteko haurrentzat. Kulturetxeko haurren liburategian, 18:00etan. EUSKARAZ.

Asteazkena, 26

Ipuin-kontalaria

KORUKO ZURUTUZA ipuin-kontalariaren saioa etxeko txikientzat. Kulturetxeko haurren liburategian, 18:00etan. EUSKARAZ.

Osteguna, 27

Zinea

KIRCHEN STORIES filma ikusgai Okendo Zinema taldekaren



Nikaraguako emakumeak kulturetxean gaur

Maria Hazel nikaraguar emakumeak *Emakume indigenak egungo Nikaraguan* izeneko hitzaldia eskainiko du kulturetxean. *Mundu bat* erakundeak eta *Komite Internazionalistek* antolatuta, XXI. Menderako Begirada Indigena Berriak jardunaldien barruan.

GAUR 19:00ETAN
KULTURETXEKO HITZALDI ARETOAN

eskutik. Bertsio originala gaztelerako azpiztituluekin. Sarrera 4 euro. Kulturetxean, 22:00etan.

sinatutako akordioaren baitan. Kulturetxeko kafetegian, 20:00etan.

Ostirala, 28

Kontzertua

UNDERNEED taldearen kontzertua, Xpression eta Gazteriak

Kontzertua

NAIZROXA (Grind-core, metal, hardcore, trash) taldearen emanaldia. Jalgi kafe-antzokian, 22:30ean.

Dagokionari

Hauxe duzu zure iritzia eta nahi duzuna adierazteko atal aproposa. Bidali edo zuzenean ekarri TXINTXARRI aldizkaria. Horretarako aukera desberdinak dituzu; telefonoz, 943-366858 zenbakira deituta, posta elektronikoz txintxari@ttakun.com helbidera bidaliz. Gure bulegora ekarriaz (Geltoki kalea 4).

Oharrak jartzeko:

Tel.: 943 366858
txintxari@txintxarri.info
txintxarri@ttakun.com
Geltoki kalea 4, behe

Oharrak

Barrikotea Lasartearran

Elkarteko zuzendaritzak bazkide eta lagunei zera jakinarazi nahi die, urtero antolatzen den barrikotea azaroaren 29an, larunbatean izango dela iluntzeko 20:30ean. Bertan parte hartu nahi duten guztiek elkartetik pasa behar dute izena ematera. Horretarako azken eguna azaroaren 26 izango da.

Katxalin Elkarteko loteria

Bularreko eta Ginekologiako Minbiziagatik Eragindako Gipuzkoako Emakumeen Elkartek, Katxalinek, gabonetako loteria bidali du Lasarte-Oriako Kontsumitzaileen Informaziorako Udal Bulegoan. Zenbakia 07.731 da eta txartel bakoitzaren prezioa 3 eurotako da, 0,50 zentimoko dohaina Katxalin elkarerako izango da. Loteria erosteko KIUBetik pasa, Ganbo kalean.

Oztabide auzo elkarteko bazkaria

Oztabide elkartekoek, Arran-

bide eta Oztaraneko auzo elkartekoek, bazkari bat egingo dute abenduaren 13an Buruntz-Azpi elkartean. Bazkarira joateko asmoa duten auzokideek ondorengo telefonoz zerbaitetara deitu behar dute azaroaren 30a baino lehen: 627818225 (Joseba) edo 943364365 (Jose Manuel).

Eguberrietako loteria

Lasartearra elkartek, bazkide eta lagunei jakinarazi nahi die, gabonetako loteria dagoeneko salgai dagoela. Erostekoa asmoa duenak elkartean egin dezake astelehenetik ostiralera 18:00aurerara abenduaren 7a arte, hau barne.

Irudiekin munduan barrena

Diaporamen zikloa Jalgi kafe-antzokian asteazkenero iluntzeko 21:00etan



Asteazkena 26

IRATI PEREZEK, Nepalera eginiko bidaia kontatuko du Bidaietako Diaporamen zikloaren barruan.

EUSKARAZ

Asteazkena 3

HIBAI DIEZEK ETA LAGUNEK Txina, Tibet, Kyrgyztan eta Uzbekistanera eginiko bidaia kontatuko dute. EUSKARAZ

Eskutitzak

Gora Euskal Herriko selekzioa! Ofizialtasuna orain!

Azken asteetan Euskal Herriko futbol selekzioaren gaia inguruan sortu den zurrumbilaren harira, eta bereziki Jon Alkortaren eskutitza, astekari honetan irakurri ondoren, nik ere nire iritzia eman nahiko nuke.

Orain dela bi urte ikusi zen Euskadiko futbol selekzioak gabonetan, urtero lez, jokatzen zituen partiduen dinamikak ez zuela Euskal Herriko selekzioaren alde ezer aportatzen. Honen harira bai jokalariek eta baita Euskadiko futbol federazioak, gizartearen nahiari erantzunez, Euskadiko selekzioa Euskal Herriko selekzioa deitza pasako zela adostu zuten, Euskal Herriko osoko jokalariez osaturik. Adostasun hau errealitate bihurtu zen lehengo urtean jokaturiko bi partidetan (Euskal Herria - Catalunya). Partida horietan ez zen inongo zurrumbilrik mediatikorik egon, denok ikusi genuelako ofizialtasunaren bidean, aurrerapauso bat eman zela.

Aurten aldiz, 180º biraketa bat egon da. Baina ez jokalarien aldetik, euskadiko futbol federazioa izan baita betoa inposatu duena. Jokalariek ez dute inongo betorik jarri, gizartearekin zuten hitza bete besterik ez dute egin. Zergatik lehengo urtean posible izan zena, aurten ez? Zer motatako presioak jaso ditu euskadiko futbol federazioak? Nondik jaso ditu presio horiek? Galdera hauen erantzunak dira egoera honen larritasuna azalarazten dutenak.

Aipagarria da ere PNVko buruzagiak izan duten jarraera, jokalariek deskalifikatzen eta beraien aurka gogor joz. Jokalari batzuei aurpegiarazten zaie, manifestu hau sinatu ondoren Espainiako edota Frantziako kamisetekin

jolastea. Ezin al du espainola edo frantsesa sentitzen den jokalaria batek manifestu hau sinatu? Bada, horri elkartasuna deitzen zaio. Ni ere futbolaria izango banintz, Catalunyako selekzio nazionalaren aldeko manifestu bat ere sinatuko nuke, eta hurrengo egunean arro eta inongo lotsarik gabe Euskal Herriko kamisetarekin jokatuko. Jarrera hau normala izango zen alderdi espainolistetan, baina ez bere burua "abertzaletzat" duen alderdi batena. Zer irudi ari dira ematen PNVko buruzagiak? Beraiek argitu beharko diote bai gizarteari eta baita ere bere oinarri sozialari zergatik ez duten nahi Euskal Herriko selekzio nazional bat.

Gaur egun asko hitz egingen da erabakitze eskubideaz. Iaz herri honek bere hitza eman zuen eta Euskal Herriko selekzioari baiezkotza eman zion. Zein da orain herriaren hitza ukatzen duena? Bada, oraingo honetan ezin zaio Espainiar gobernuari errua bota, oraingo honetan arazoa etxean dugu.

"Euskadi" izan da euskal kirolariak banatuta lehiatzen behartu dituen: atleta nafarrak kanpoan utzi dituen, ur jokoetan ipar euskal herriko kirolariak akitanien koloreak defendatzen behartu dituen, nahiz eta beraien borondatea, guztiak batera aritzearena den. Hori guztia Lakuako gobernuak eragin du.

Selekzioaren izenaz haratago, euskal futbolariak manifestu argiki erakusten du ezinbestekoa dela zazpi lurraldeak bere baitan hartzen dituzten eta EAEkoak ez direnak diskriminatzen ez dituzten federazio propioak sortzea dela, biharko egunean, Euskal Herriko selekzio ofizial bat ikusteko bide bakarra. Guztiok batera lan eginez, bide hori egitea lortu dezakegu.

Unai Perez

Bideo-joko didaktikoa kalean

■ *Armix Ilargian Galduta* izeneko CD-ROMa argitaratu du Elhuyar Fundazioak ■ 7-10 urteko haurrentzat prestatua matematika, inguruaren ezaguera eta hizkuntza lantzeko ■ Armix pertsonaia protagonista duen bideo-joko sorta ikusgarriaren bigarren alea salgai da

TXINTXARRI

Elhuyar Fundazioak *Armix Ilargian Galduta* izeneko bideo-jokoa argitaratu berri du, 7-10 urteko haurrentzat. Bideo-joko hau Armix pertsonaia protagonistatzat duen serie bateko bigarren CD-ROMa da, eta jolasen bidez, jokalariek matematikako, inguruaren ezaguerako eta hizkuntzako gaiak landuko ditu. Teknologiari dagokionez, hiru dimentsioko irudiez gain, jolas-teko ere 3D-ko ingurunea izango du jokalariek.

Armix pertsonaia ezaguna da euskal gaztetxoaren artean, Zernola.net atarian ageri delako: bertako olinpiadak gidatzen ditu eta 2007an argitaratu zen *Armix baso magikoan* CD-Rom-eko protagonista da. Zernola.net-en hainbat esperimendu, joko, proba eta zientziari buruzko galdera eta erantzunak biltzen dira besteak beste.

Ilargian galduta

Armix-ek lagunduta bideo-jokoak sortzen jarraitzeko asmoa du Elhuyarrek. Orain bigarren CD-Rom-a argitaratu du: *Armix ilargian galduta*. Iazkoarekin alderatuz, zenbait hobekuntza ditu: Armixen mugimenduak bi dimentsiotatik hiru dimentsiotara pasa dira, pertsonaiek 360 gradu itzuliak ematen ditu, eta bestalde, oinarria jokua da eta hor sartu dira ariketa didaktikoak. Iazko bideo jokoa 5-8 urte bitarteko haurrentzat bazen, berri 7-10 urte artekoentzat da.

Armix-ek berriro abentura zirrargarria bizi du: pertsonaia Ilargira iritsi da, baina iritsi bezain laster bere kohetea lapurtu diote. Jokoa zehar, Armixi bere koheatea bilatzen

lagundu beharko dio jokalariek, lurrera bueltatu ahal izateko. Abentura horretan zehar hamaika munstrori egin beharko die aurre. Horretaz gain, hainbat galderari ongi erantzun beharko die, jokoa aurrera egin ahal izateko.

Demoa interneten

Armix ilargian galduta jokoa demoa www.elhuyar.org/armix2 web gunean dago. Gainera, web gune horretan, jokoa iruzki irudiak eta bideo bat ere badaude. Elhuyar Fundazioak duela bi urte ekin zion euskarazko bideo-jokoen ekoizpenari.

Lehenengo bideo-jokoa *Hiru Mosketariak* aisialdizuzendutakoa izan zen: berez beste hizkuntza batean sortua zen joko hau euskaraz argitaratu zuen Elhuyarrek. 2007an, beste bi bideo-joko kaleratu zituen: *Kao: Sumendiko Sekretua* euskaratua eta *Armix Baso Magikoan*, Zientzia Elkartearen asmatu eta sortua, hain zuzen.

Bestalde, abenduan beste CD-Rom bat kaleratuko da geografiaz buruzko joko batekin. Hau adin guztietarako da eta toki izenak euskaraz zuzen ikasteko laguntza handia emango du.

Danel Solabarrieta pedagogo eta Elhuyarrek multimedia arduradunak koordinatzen du bideo joko berrien sorkuntza. Hurrengo urterako egitasmoen artean dira, batetik Armix-en hirugarren joko-istorioa kalera tzea eta beste jokoren bat euskaraz ematea.

Bideo joko didaktikoa liburudendatan daude salgai, Usurbilen Elhuyarren egoitzan ere eskuratu daitezke edo interneten Elhuyar.org/denda helbide elektronikoan. Durangoko azokan ere izango da salgai. •



Armix Ilargian galduta, liburudendetan, Elhuyarren edo Elhuyar.net/denda helbidean eskuratu daitezke.

GABONETAKO TXOKOAK

Goizeko 9:00-13:30
2000tik 2006ra jaiotakoak

Matrikula: abenduaren 17ra arte

Aurten larunbatetan ere bai!!!

Ttakun K.E. Geltoki kalea 4, 943 37 14 48, Amaraun ludoteka, Ola kalea 1, www.ttakun.com, aisia@ttakun.com